


Konpromiso eta eraldaketa esperientziak **Gipuzkoan**

EZAGUTZA ZABALDUZ

2017ko Azaroa



Aurkibidea

Aurkezpena	3
1. “Lurraldearekiko konpromisoa eta eraldaketa balioan jarritz” definituz	5
2. Eraldaketa esparrua Gipuzkoan kokatuz	7
3. Gipuzkoako proiektu eraldatzaileen aukeraketa	9
4. Eraldaketa, praktikatik abiatuz: esperientzien komunitatea	17
1. Esperientzia: PARTEKIN, NUEVO MODELO PEDAGÓGICO TRANSFORMADOR PARA EL DESARROLLO DE PERSONAS ACTIVAS, CRÍTICAS, PARTICIPATIVAS Y RESPONSABLES CON LOS RETOS DEL FUTURO	19
2. Esperientzia: LEGOP -LEARNING GOOD PRACTICES IN EUROPEAN COUNTRIES	23
3. Esperientzia: GROWMAT - Growing de market in accesible tourism (Erasmus +)	25
4. Esperientzia: INTGEN (Erasmus +)	27
5. Esperientzia: DEBABARRENAN BERRIKUNTZA SOZIALA ERAGINEZ PROIEKTUA	29
6. Esperientzia: UNIBERTSITATEKO GIZARTE INKUBAGAILUA SORTZEN	31
7. Esperientzia: MODELO DE UNIVERSIDAD TRANSFORMADORA 33	33
8. Esperientzia: EKIMENA PROIEKTUA	37
9. Esperientzia: GOIERRIKO KOOPERATIBETAKO LANGILEEKIN ERANTZUNKIDETASUN SOZIALEAN OINARRITUTAKO TOKIKO GARAPENA BULTZATZEN	39
10. Esperientzia: CUADRO DE MANDO DE IMPACTO SOCIAL	41
11. Esperientzia: OIHANA: PLAN INTEGRADO PARA EL DESARROLLO DEL EMPRENDIMIENTO EN LA ECONOMÍA SOCIAL	43
12. Esperientzia: NERE COOP 2020	45
13. Esperientzia: PERTSONAK 4.0	47
14. Esperientzia: BATERATZEN	49
15. Esperientzia: COORDINACIÓN DE HERRAMIENTAS DE DIAGNÓSTICO	51
16. Esperientzia: ITURRION	53
17. Esperientzia: HEZI+	55
18. Esperientzia: LANGIRO	57
19. Esperientzia: IKD GAZte	59
20. Esperientzia: BELAUNALDIAK UZTARTU	61





Aurkezpena


Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka sailak finantzatutako “Lurraldearekiko konpromisoa eta eraldaketa balioan jarritz” proiektuaren esparruan, Ikerpartnersek GIPUZKOAN ERALDAKETA ETA KONPROMISORAKO ESPERIENTZIEN GIDA aurkezten du.

Berrikuntza dosi altuak dituzten ekimen eta proiektu batzuk aukeratzea eta ikusgai bihurtzea da helburua, eta Gipuzkoako pertsona, enpresa eta erakundeen eta baita gizarte-lurraldearen konpromiso eta eraldaketan sakontzen dute.

Konpromisoa, berrikuntza eta eraldaketa indartzeko administrazio publikoen finantza-laguntzarekin edo baliabide pribatuko ikertzen, metodologiak eta tresnak garatzen eta praktika esperimentalak egiten, hainbat urte daramaten erakunde pribatu eta publikoak (unibertsitateak, enpresak, hezkuntza eta prestakuntza zentroak, irabazi-asmorik gabeko elkarteak, garapenerako agentziak, ikerketa zentroak, etab.) asko dira. Gida honek, Gipuzkoan gaiari buruz egiten ari den ezagutzaren Mapa handiaren zati bat baino ez da.

Ikerpartnerseko taldeak entitate guztiei gida eraikitzeko, lankidetzeta eta eskainitako denbora eskertzen die.

¡Eskerrik asko!





1. “Lurraldearekiko konpromisoa eta eraldaketa balioan jarriz” definituz

Gizarte eta Lurralde eraldaketa

“Lurraldearekiko konpromisoa eta eraldaketa balioan jarriz” Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka sailaren «Pertsonekin eta lurraldearekin konpromisoa hartu duten enpresak sustatzeko programaren» esparruan dagoen proiektua da. Gizarte- eta lurralde-balio partekatua garatzeko, gizarte- eta lurralde-eraldaketa pertsonen, enpresen, gizartearen eta lurraldearen konpromisoa inkardinatzeke formula gisa sustatzeko ekimenak agurtzea du xedea. Ikerpartners izan da 2016 eta 2017 bitartean proiektua garatu duen entitatea.

Hitzaldia eta praktikak

PERTSONEN, ERAKUNDEEN ETA LURRALDEAREN KONPROMISO ETA PARTAIDETZAREN inguruan Gipuzkoan garatutako ekimen eta proiektuak ezagutzea da ikerketaren helburua, eta, horri buruz sortzen ari diren EREDU/DISKURTSOaren panoramika lortzea; BALIO PARTEKATU BERRIA SORTZEA; ETA EZAGUTZA IKUSGAI BIHURTZEA, eremu honetan lan egiten duten pertsona, enpresa eta erakundeei, eraldaketarako ikuspegi, metodologia eta tresna egokiak eskainiz; horrela ezagutza horren sorkuntza, transmisio eta ezagutza lagunduz. Proiektuaren emaitza gisa GIPUZKOAN ERALDAKETA ETA KONPROMISO ESPERIENTZIEN GIDA aurkezten da.





2. Eraldaketa esparrua Gipuzkoan kokatuz

Gizarteak aurre egin behar dien erronka garrantzitsuenei aurre egiteko, eremu publikotik sustatutako eta garatutako ekimen eta estrategia desberdinen helburu komuna da gizarte eraldaketa., eta azken urteetan garatutako eta landutako beste alderdi batzuk biltzen dituen kontzeptu gisa ezartzen da. Adibidez, berrikuntza soziala, erantzukizun sozial korporatiboa, tokiko konpromisoa, lankidetzak ekonomia, etab.

Horrela, eremu publikoan sortutako ekimen askotarikoei gortputz/ikuspegi komunaz hornitzeko balio du; hortaz, dagokion lurralde maila edo gai-eremua alde batera utzita, gizartearen erronka eta helburu partekatuekin lerrokatuko ditu balio handiko alderdiak nortasun ezaugarri gisa banean hartzen dituzten prozesuetan, besteak beste: sormena, partaidetza, berrikuntza, konpromisoa, lankidetzak, elkarrekin sortzea, gobernantza, inklusioa, ikaskuntza, jasangarritasuna, etab.

Urte hauetan zehar, administrazio publikoek proiektu eraldatzaileak sustatzeko laguntza lerro estrategikoak ireki dituzte, eremu baterakoak eta elkarrengandik urruntzen diren entitateak hibridatzen eta elkarlanean ari diren agertoki berriak aurkituz (entitate publiko eta pribatuak, unibertsitateak, hezkuntza zentroak, enpresak, ikerketa zentroak, GKEs, profesionalak eta pertsona bolondresak, herritarrak, etab.).

Gipuzkoan, berritzaileak diren proiektu mota hauen garapenerako Administrazio Publikoaren maila desberdinetatik bultzatutako programa eta ekimenen artean, eta beste batzuen artean proiektu honen behaketa eremua mugatzeko balio izan du, hurrengo hauek aipatu behar dira:

- HORIZON 2020 programaren berrikuntza eta ikerketa jarduerak finantzatzeko programa markoa, EaSi programa enplegu eta berrikuntza sozialerako, edo ERAMUS+ programa europarra, hezkuntza eremuan praktika onen garapen eta berrikuntzarako ekintza gakoan.
- Bizitza osoan zehar eskuratutako ikasketarekin lotutako esperientziazko proiektuak garatzeko laguntza ekonomikoak bezalako Eusko Jaurlaritzaren laguntza eta diru-laguntza programak, edo giza-ekonomian enpresen arteko kooperaziorako laguntzak, edo kultura eta gizarte bitartekaritza eta berrikuntza proiektuetarako diru-laguntzak.
- Garatutako proiektu eta egindako inbertsioa lurralde mailan duten garrantziagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako Etorbizuna Eraikiz programa, edota izaera zehatzagoa dituzten beste batzuk nabarmentzen dira, hala nola, pertsonekin eta lurraldearekin konprometituta dauden enpresak sustatzeko Programa edo Gipuzkoako lehiakortasuna eta lurralde kohesioa sustatzeko Programa.
- Gainera, Innobasque eta Spri gisako erakundeak enpresa eremuko erreferentzia garrantzitsuak dira, eta eremu politikotik zehaztutako estrategiak ezagutzera ematera eta, baita ekimen eraldatzaileen sustapenean laguntzen dute ondorengo bideen bitartez: Innobideak edo basque industry 4.0 programak, Horizonte 2020 I+G+Bko Programa Europarra, edo Basque Social Innovation nodoa.
- Tokiko mailara ekimenak aurki daitezke ere, adibidez, Errenteriako berrikuntza proiektuen sustapenerako Ekitera-Plus diru-laguntzak, berrikuntzarako zerbitzuak eta talentua eta aurreratutako zerbitzu teknologikoak gehitzeko Donostiako Sustapenaren laguntza programak.



Gizarte eta lurralde eraldaketa

testuinguru aproposak sortu ditu eta baita eremu anitzetako erakundeetan sendotu diren kolaborazio-ekosistema zabalago, konplexuago, eta eraginkorragorako bilakaera ekarri ditu, hauek, eraberean, eragile heterogeneoen integrazio handiagoa eta ezagutza sorrera eszenatoki zabalagoak planteatzen dituztelarik.. Ondoren, modu laburrean, Gipuzkoan gizarte eraldaketaren garapenean eremu hauetako bakoitzak izandako papera identifikatzen da.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOA

Publikoa, eraldaketarako trakzio-nukleoa. Administrazio publikoak eraldaketaren lidergoan paper nagusia bere gain hartzen du, bere jardueraren ardatzak ondorengoak direlarik: gizarteak aurre egin behar dituen erronka estrategikoen definizioa; ekimen eta baliabideen bideraketaren diseinua; eta gizartearen ongizatearen hobekuntzarekin lotutako eta elkarrekin lotu behar diren helburuen lorpenerako eremu publiko eta pribatuko eragile desberdinen orientazio eta koordinazioa. Laguntza eta diru-laguntza lerro garrantzitsuez gain, konpromiso hau proiektu estrategiko zehatzen partaidetza zuzenaren edo lidergoaren bidez garatzen da ere. Bestalde, eskualdetako garapen agentziek, Gipuzkoako gizarte eta enpresa ehuna sendotzeko oso garrantzitsuak diren sinergiak edo lan-sareak sortzea ahalbidetzen ari diren tokiko/eskualdeko ikuspegia duten proiektuetan lan garrantzitsua egiten ari dira.

HEZKUNTZA

Unibertsitateak, ezagueraren sorkuntzan funtsezko agenteak, eraldaketaren garapenean atal ezinbestekoa eta osagarria. Unibertsitateak berrikuntza lehiakortasunerako, ekonomiaren hazkunderako eta gizartearen eraldaketarako bide bezala sustatzen duten aktibo intelektualen sustapenerako funtsezko eragileak dira. Zentzu honetan, proiektuen oinarriak edo hauek oinarritzen dituzten ezagutza teorikoak indartzen dituzte, eta bere laguntzak, unibertsitatearen eta gizarte edo enpresen arteko noranzko biko ezagutzen transferentzia errazten du.

Unibertsitateaz kanpoko prestakuntza zentroak, lurraldearen eraldaketarako oinarrizko tresna.

Unibertsitateaz kanpoko prestakuntza zentroak, lurraldearen eraldaketarako oinarrizko tresna. Zentro hauek ikuspegi zabaletik hezkuntzaren berrikuntzarako balio altuko proiektuak garatzen dituzte, unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren etapa ezberdinetan ari baitira ikasleekin, irakasleekin, familiarekin, testuingurekin eta hurbileko beste eragileekin, etapa goiztiarretatik pertsonen eraldaketarako eta, etorkizunean, lurralderako funtsezkoak izango diren gaitasunen garapenean esku hartuz.

IKERKETA

Ikerketa zentroak, eraldaketarako erakunde eragileak Gipuzkoan.

Enpresa eremuaren eta unibertsitatearen arteko lotura garrantzitsua dira, berrikuntza proiektu berriko entitate eragile gisa duten rolez gain, ezagutzaren transferentziako funtsezko eragile bihurtzen dutenak. Euskadin oro har eta Gipuzkoan bereziki ikerketa eta esperimentazio gune hauek adierazten duten nazioarteko aintzatespena hartu behar da kontuan.

ENPRESA

Enpresak eta enpresa-elkarte/elkarte profesionalak, eraldaketaren esperimentazio praktikoaren eta elkarrekin sortzeko prozesuen funtsezko osagarri gisa. Enpresak dira garatutako proiektu askoren aplikazio eremua. Ildo honetan, konponbide berritzaileak elkarrekin sortzeko funtsezko atalak dira, non, gainera, hainbat enpresen izaera eragilea nabarmendu behar baita, zeharkako ikuspegia duten eraldaketarako metodologia eta tresnen diseinuan eta garapenean.



3. Konpromiso eta eraldaketa esperientziak Gipuzkoan

Atal honek, ikuspegi orokorretik, konpromiso, berrikuntza eta gizarte eraldaketaren, ikerketan, praktika, metodologia, tresna eta euskarrien garapenean, hezkuntzan eta ezagutzaren difusioan sakontzen duten esperientziak aukeratu dira.

Esperientzia hauek lantzeko hurrengo edukiak analizatu dira:

Zeintzuk dira ekimenen arreta-foku nagusiak?

Zein alderditan sakontzen da? Konpromiso, berrikuntza eta eraldaketari buruzko kontzeptuen Mapa


Zer osagaik bizkortzen dituzte ekimen eraldatzaile hauek?



3.1. Konpromisoa, Berrikuntza eta Eraldaketa

A r r e t a - G u n e a

Aukeratu diren ekimen eta proiektuak ikuspegi hirukoitzetik garatzen ari dira: enpresak eta antolakundeak, pertsonak, lurralde-gizartea; gizarte-eraldaketarako eta lurraldearekiko konpromisorako begirada osagarriak eta baterakoak hartzen dituzte barnean.





Enpresak | Antolakundeak

Zuzendaritza taldea (bereziki Giza baliabideen eremukoak), Antolakundeako pertsona-multzoa (langileak), gainerako stakeholder-ak (akziodunak, bezeroak, hornitzaileak,...)

Enpresa eraldatzea lurraldea eraldatzeko

Arreta-foku nagusitzat enpresa edo antolakundea hartzen duten proiektuak dira, eta kasu gehienetan, antolakunde horiek osatzen dituzten pertsona-multzoari zuzentzen zaie.


Oro har, barne-mailan ezartzen diren eraldaketa eta konpromisotik abiatuz, lurraldearen eraldaketan parte hartzaren aldeko apustua egiten dute ekimen horiek.

Identifikatutako ekimenen artean enpresen lehiakortasuna eta lurraldearekiko duten konpromisoa hobetzera bideratutako proiektuak garatzeko joera hautematen da. Hori Guztia, antolaketa- eta kudeaketa-ereduen bilaketa eta ezarpenaren bidez, egiten da, non antolakundeen eta pertsonen interesak bat. Azken finean, etorkizuneko erronkei baldintza hobereenetan aurre egitea ahalbidetuko duten irabazi-irabazi estrategiak ezartzean datza.

Hauteman dira:

- Lan-testuinguru onuragarriak sortzearekin lotutako proiektuak, langileek antolakundeetan duten partaidetza, inplikazio eta erantzunkizuna modu aktiboan sustatzen duten pertsonen bideratutako kudeaketa-ereduen bitartez.,
- Enpresan konpromisoaren, partaidetzaren eta abarren inguruan diharduten pertsonen gaitasun teknikoak eta zeharkakoak indartzeko prestakuntza-ibilbide espezifikoek garapenera lotutako proiektuak
- Eremu edo jarduera zehatzaren eraldaketa sustatzera edo antolakundeetan gizarte-balio altua duten alderdiak edo prozesuak balioan jartzera bideratutako proiektuak, horien pertzepzioa stakeholder askotarikoekin hobetzeko asmoarekin





P e r t s o n a k

Pertsona ekintzaileak | Lan-irtenbide prozesuetan dauden pertsonak
Ikasleak | irakasleak, familiak | Gizartea oro har


Pertsonaren banakako eraldaketa lurraldearen eraldaketarako bidea

Pertsonen banakako eraldaketatik abiatuta, lurraldearen eraldaketa bilatzen duten proiektuak dira. Ikaskuntza ingurune, gune eta prozesuak hobetzera eta bizitzaren eremu eta etapa guztietan pertsonen eta antolakundearen garapenaren oinarria diren beharrezkoak diren zeharkako gaitasunen garapena sustatzera bideratutako proiektuak kokatzen dira multzo honetan. Ezagutzan oinarritutako gizarterantz bilakaera izateko testuinguru onuragarria sortuz.

Proiektu hauetariko asko hezkuntza–testuinguruan garatu dira, adimen emozionalaren, ekintzailearen eta ekimenaren senaren eremuetan funtsezkoak diren gaitasun espezifikoak eta baita Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntzaren eremuan funtsezkoak diren bestelako gaitasunak ere sustatzeko xedearekin.

Adierazten den legez, esperientzia horiek hezkuntza-komunitatean ezar daitezke eta, oro har, ikasleak, irakasleak eta zuzendaritza-langileak, familiak, gazteak eta herritarrak oro har dira gizatalde hartzaileak.





Lurraldea | G i z a r t e a

Gizarte eragileak, eragile ekonomikoak, kultura-eragileak, hezkuntza-eragileak...


Logika kolektibotik lurraldea eraldatuz

“Antolakundez gaindiko” ikuspegitik garatutako proiektuak, lurraldearen gizarte-erldaketa maila kolektibotik bilatzen dutenak, ingurune geografiko bateko edo anitzeko eragile/gizatalde askotarikoen esku-hartzearen bitartez.



Eragile ekonomiko, lurralde-eragile eta gizarte-eragile ezberdinek lurraldearen erldaketan modu aktiboan parte har dezaten, baldintzak eta tresnak sortzen ari dira proiektu hauek.



3.2. K o n t z e p t u m a p a konpromisoarena, berrikuntzarena eta eraldaketarena



3.3. Ekimen eraldatzaileen osagarri azeleratzaileak






4. Eraldaketa, praktikatik abiatuz: esperientzien komunitatea

kapitulu honek ondorengo praktiken zerrenda hartzen du barnean:

1. Esperientzia: PARTEKIN, NUEVO MODELO PEDAGÓGICO TRANSFORMADOR PARA EL DESARROLLO DE PERSONAS ACTIVAS, CRÍTICAS, PARTICIPATIVAS Y RESPONSABLES CON LOS RETOS DEL FUTURO	19
2. Esperientzia: LEGOP -LEARNING GOOD PRACTICES IN EUROPEAN COUNTRIES	23
3. Esperientzia: GROWMAT - Growing de market in accesible tourism (Erasmus +)	25
4. Esperientzia: INTGEN (Erasmus +)	27
5. Esperientzia: DEBABARRENAN BERRIKUNTZA SOZIALA ERAGINEZ PROIEKTUA	29
6. Esperientzia: UNIBERTSITATEKO GIZARTE INKUBAGAILUA SORTZEN	31
7. Esperientzia: MODELO DE UNIVERSIDAD TRANSFORMADORA	33
8. Esperientzia: EKIMENA PROIEKTUA	37
9. Esperientzia: GOIERRIKO KOOPERATIBETAKO LANGILEEKIN ERANTZUNKIDETASUN SOZIALEAN OINARRITUTAKO TOKIKO GARAPENA BULTZATZEN	39
10. Esperientzia: CUADRO DE MANDO DE IMPACTO SOCIAL	41
11. Esperientzia: OIHANA: PLAN INTEGRADO PARA EL DESARROLLO DEL EMPRENDIMIENTO EN LA ECONOMÍA SOCIAL	43
12. Esperientzia: NERE COOP 2020	45
13. Esperientzia: PERTSONAK 4.0	47
14. Esperientzia: BATERATZEN	49
15. Esperientzia: COORDINACIÓN DE HERRAMIENTAS DE DIAGNÓSTICO	51
16. Esperientzia: ITURRION	53
17. Esperientzia: HEZI+	55
18. Esperientzia: LANGIRO	57
19. Esperientzia: IKD GAZTE	59
20. Esperientzia: BELAUNALDIAK UZTARTU	61





1. Esperientzia:
PARTEKIN, nuevo modelo pedagógico transformador para el desarrollo de personas activas, críticas, participativas y responsables con los retos del futuro

Entitatea: ARIZMENDI IKASTOLA, KOOP. ELKARTEA

Harremanetarako datuak: JOSEBA IÑAKI ETXEZARRETA

Gaia:


Eredu pedagogiko eraldatzailearen garapenaren bidez, Gipuzkako gizartean etorkizuneko funtsezko gaitasun eta Gizarte-balioen sustapena

Aplikazio esparrua:

Hezkuntza, sozio-komunitarioa

Kolektibo hartzaileak:

Lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleak, irakasleak eta zuzendaritzako langileak. Hezkuntza eremuko beste entitate eta eragile sozio-komunitarioak.



⊗ Proiektuaren deskribapen laburra:


PARTEKIN “APRENDIZAJE – PROMOVER LAS COMPETENCIAS DE LAS PERSONAS Y TERRITORIO” lerro barruan Esperimentazio eta I+G+B proiektu bezala eratu zen; haren xedea ondorengo da:

- Funtsezko gaitasunen garapenaren, testuinguru onuragarria sortzearen, aktiboa den herritartasunaren kontzeptuaren erabileraren eta hori sustatzeko laguntza-tresnen garapenaren bidez, pertsonentzako, enpresetarako eta lurralderako bizitza osoan zeharreko ikaskuntza sustatu
- Pertsonen, enpresen eta lurraldearen ahalduntzearen potentzialtasunak eta tokiko ekonomiaren abantaila erlazionalak optimizatuz, gizarte eta lurralde premiak, aukerak eta erronkak asetzeko bide berriak bideragarri egin.
- Lurralde eta gizarte-balio partekatua lortzeko garatutako prozesu desberdinak ebaluatu, lehenetsuna eman eta gizartean zehar hedatu.

Etorkizuneko erronkekin arduratsuak eta partaideak, kritikoak eta aktiboak diren pertsonak garatzeko eredu pedagogiko eraldatzaile berria garatzea eta ezartzea ahalbidetu du PARTEKIN proiektua gauzatzeak. Gipuzkoako lurralde historikoak egun aurre egiten dien erronka batzuei erantzuna eman nahi die proiektuak, besteak beste: gizarte-demokratizazioa bultzatzea, herritarren partaidetza sustatzea eta kultura aldaketa-palanka, gizarte eraldaketa eta aberastasunaren sorkuntza-iturri bihurtzea. Horretarako, ikastolei salto kualitatiboa ematea ahalbidetzen dien eredu pedagogikoa ematen die. Eredu horrek gizarte-erlaketan aktiboak eta protagonistak diren pertsonen garapena ziurtatzen du, horrela, hezkuntza-sistemak aurre egin beharreko erronkei erantzuna emanez. Kontuan hartu behar da hezkuntza-sistema horrek gizarteak adierazitako gizarte- eta hezkuntza premiek ezaugarritzen dutela eta pertsona konprometitu, inplikatu eta ekimentsu, berritzaile, eraldatzaile, eta ekintzaile, helburuetan, erabakietan eta garapenean partaide, ingurunearekin eskuzabal, euskaldun, solidario, eta munduarekiko ikrekiak diren pertsonen sustapenean oinarritutako hezkuntza-profil berriak definitzeko eta zabaltzeko premia ondorioztatzen dutela.

⊗ Helburu nagusiak:

- proiektu kurrikularraren garapenaren eta, ikuspegi parte-hartzaile eta kritiko batetik, ikasgelako jardueren planifikazioaren bidez, garapen pedagogikoa aldaketaren eragilea izan dadila sustatzea.
- Gizabanakoaren Gizarte- eta hezkuntza-esperientziek pertsonaren gaitasun-garapenari lehenetsuna eman diezaietela sustatzea, Gipuzkoa anitza eta kohesionatuaren arrakasta ahalbidetzeko.
- Irakasleen gaitasunak eta praktika berritzaile, eraginkor eta inklusiboen garapena hobetzen duen kalitatezko hezkuntzaren parte gisa, Ezagutza, ikerkuntza eta berrikuntza eskuratzea sustatu.
- Familien eta gizarte- eta hezkuntza-eragileen eta, oro har, herritarren lankidetzeta eta partaidetza eremu pedagogikoa sustatu. Baita, erakunde eta eragile desberdinen arteko koordinazio proaktibo eta sistematizatua posible egiten duen sare baten sorrera sustatu ere.
- Gipuzkoako lurraldearen Gizarte-maila desberdinak gainditzen dituen hezkuntza-eredu berria bultzatu, pertsonen eraldaketan oinarrituz, balio etiko berriak beregain har ditzaten.




⊗ Parte hartu duten beste erakundeak:

- ARIZMENDI S. COOP., proiektuaren lider gisa, eta proiektu pedagogiko berritzailearen osagai teknologiko altuko garapenean espezializatutako ikastola gisa.
- LKS INGENIERÍA S. COOP., entitate parte-hartzaile gisa, bere DIARA DESIGN sailaren bitartez Design Thinking-ean espezializatua
- EREDU S. COOP. Hezkuntza sektorean interrelazio eremu berrien sormenean eta altzari profesionalaren fabrikazioan espezialista eta enpresa parte hartzaile gisa.
- ISEA S. COOP. Enpresa azpikontratatu gisa, I+D zentro pribatu gisa eta Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko kide gisa, hezkuntza eremuan enpresa ekimen berrien irteeran espezializatua.

⊗ Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:

Euskal hezkuntza-entitateen aldetik, proposatutako ereduak modu ordenatu, sekuentzial eta integralean ezartzea baimentzen duen konponbide neurri-sorta baten garapenean interes argia identifikatu da. Horregatik, euskal hezkuntza-merkatuan ibilbide handiena izango zuen produktua, PARTEKIn hezkuntza-eredua dela uste dugu, jarraian azaldutako azpi produktu eta zerbitzuen katalogoarekin:

- Esku-hartze metodologia pedagogikoa.
- Material didaktiko multzoa.
- Ikasketa espazio berritzaileen sorkuntzarako esku-hartze eskuliburua





2. Esperientzia:
**LEGOP -LEARNING GOOD
PRACTICES IN EUROPEAN
COUNTRIES**

Entitatea: Axular Lizeoa TEA


Harremanetarako datuak: JUAN EZEIZA GUTIÉRREZ /
XABIER INSAUSTI UNANUE

Gaia:

Jardunbide egokien bidez inklusioa bultzatzea,
sexu-orientazioarekin zein behar bereziko
pertsonekin zerikusia duen bereizkeria saihestuz
eta teknologia erabiliz

Aplikazio esparrua:
Hezkuntza

Kolektibo hartzaileak:
Irakasleak, formatzaileak eta ikasleak.



⊗ **Proiektuaren deskribapen laburra:**

LeGoP proiektuaren metodologia ondorengo alderdietan oinarritu da: jarduera egokien nazioarteko trukeak, jarduera didaktikoetara egokitutako IKTen erabilera eta onuradun zuzenen parte-hartze proaktiboa, bereizkeria saihesteko metodologia eta tresna berritzaileak erabiliz, bereziki heziketa-premia bereziekin eta sexu-orientazioarekin loturik daudenak. Hezkuntza-ingurunearen barruko sentsibilizazio- eta informazio-jarduerak, eskola-saioak eta programaren komunikazio- eta hedapen-ekitaldiak ere ez dira falta. Proiektuaren barruan sexu-orientazioarekin zerikusia duen bereizkeria aurreikusi eta kudeatzeko ikastaro birtuala eraiki da. Era berean, behar bereziko pertsonen inklusioa teknologia berrien erabileraz errazteko eta homofobiari aurre egiteko prestakuntza-ekintzen sekuentzia (Curriculum) eta garatutako jarduera egokiak hedatu eta aplikatzeko tresna pedagogiko-mutua (Toolkit) prestatu dira.

⊗ **Helburu nagusiak:**

- Europako herrietako hezkuntza-ereduak ezagutzea
- Ikasleen hezkuntza-arrakasta bultzatzea ikasketa-ereduen identifikazio eta trebetasun digitalen garapenaren bidez
- Heziketa-behar bereziak dituzten ikasleen inklusioa sustatzea irakaskuntza pertsonalizatu eta teknologia berrietan oinarritutako tresnen bidez
- Jokaera negatiboak identifikatu, aurreikusi eta saihestea
- LGBT personentzako gizarte-babesa bultzatzea

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**


- Bari-ko (Italia) Salvemini lizeo zientifikoa
- Bari-ko (Italia) Elpendù behar bereziko langileentzako kooperatiba
- Amsterdam-eko Gale elkarte (global alliance for LGBT education)
- Gipuzkoako Gureak itinerary.

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Esperientzia horiek oso onuragarriak dira heziketa-zentroetarako, eta ikuspegi honetatik, ekimen-mota honen bulkada nabarmena gertatzen da heziketa-eremuko Gizarte-erronkak gehitzeko. Ildo honetan, euskaraz eta gaztelaniaz dauden materialei hedapen handiagoa eman dakieke (<http://www.lgbt-learning.org>). Bestalde, irakasleei eta hezitzaileei homofobiaren eta transfobiaren prebentzioan gaitasun handiago emateko tresna hobetu eta sakondu daiteke.

⊗ **Entitatea:**

Axular Lizeoa, Donostian kokatutako ikastola da, proiektua 1969an sortu zen eta gaur egun, gizarte-kooperatiba gisa, 2 urtetatik 18 urtetara doazen hezkuntza etapak hartzen ditu. Euskal Herriko kultura esparruan, bere guraso eta irakasleekin harreman estuan, haur eta nerabeei giza-garapen integrala emateko helburua du.



3. Esperientzia:
**GROWMAT – Growing de market
in accesible tourism
(Erasmus +)**


Entitatea: CEBANC

Harremanetarako datuak: M^a JOSÉ IRASTORZA

Gaia:
Ekintzaitza, Turismo irigarria.

Aplikazio esparrua:
Turismo sektoreko enpresa eta hezkuntza-
esparrua.

Kolektibo hartzaileak:
Turismo arloko enpresa, ikasle eta irakasleak,
herritarrak oro har.



⊗ **Proiektuaren deskribapen laburra:**

Europar ekimena, bertan Europar Batasuneko 9 partner-ek hartzen dute parte. Turismo irigarriaren merkatua bultzatzeko esperientzia eta gaitasun askotarikoak eskaintzen dituzte partner horiek, hala sektorean nola zeharkako ikuspegi zabaletik, sektore turistikoko pertsona ekintzaileei eta eragileei irisgarritasunaren begirada barneratzen eta sustatzen lagunduko dieten prestakuntza-ikastaroak baliatuz.

⊗ **Helburu nagusiak:**

- Sektore turistikora bideratutako irisgarritasun eta ekintzailtza arloetan prestakuntza eskaintzea
- Merkatuaren "estazionalizazio-eza"ren alde egin, fokua pertsona nagusiengan jarritz.
- Gizarte, hezkuntza eta enpresa arloan eragile desberdinen arteko lankidetzak sortu
- Sentsibilizatu eta irisgarritasunaren profila hobetzera lagundu

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**


- Herrialde desberdinetako 9 partner:
 - Ingalaterra, Belgika, Eslovenia, Finlandia eta Greziako heziketa-zentroak.
 - Errotu (Bananako espazio terapeutikoaren diseinurako arkitektura)
 - Hotel Advisor Consulting (Hotel kudeaketa, merkaturatze eta aholkularitza)

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Kasu honetan turismo sektorean irisgarritasun ikuspuntua sartu da. Baina proiektuaren garapenean, "desberdina" den merkatura begirada zabaltzeak beste sektore batzuetako enpresei ekar diezaien aukera utzi da agerian, askotan premia horiei ekintza errazen bitartez erantzun baitiezaieke.

⊗ **Entitatea**

1975ean Donostian sortutako Lanbide Heziketa zentroa; haren eskaintza 3 lerrotan ardatzen da: Hasierako prestakuntza (Heziketa zikloak, goi eta Erdi mailakoak), Etengabeko prestakuntza eta Lanerako prestakuntza.



4. Esperientzia: **INTGEN (Erasmus +)**

Entitatea: CEBANC

Harremanetarako datuak: M^a JOSÉ IRASTORZA

Gaia:


Ekintzailletza, Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza.

Aplikazio esparrua:

Hezkuntza, sozio-komunitarioa.

Kolektibo hartzaileak:

- Gazte langabetuak (30 urtetik behera) eta 45 urtetik gorakoak
- Ekintzailletza-trebetasun edo izaera duen edonor
- Aurreko ezagutzak dituzten langabetuak
- Profesional erretirodunak
- Baztertze arriskuan dauden pertsona nagusiak
- Erretirotik gertu lanean dauden pertsonak
- Unibertsitate eta lanbide heziketako irakasleak.



⊗ **Proiektuaren deskribapen laburra:**

Etengabeko ikaskuntzarako ekimena, belaunaldi guztietan ekintzaitza izaera sustatzea xede duena; horretarako, haien trebetasunak garatzen dira ikaskuntza-metodologiaren/ belaunaldi arteko lankidetzaren bidez, taldeko elkarrekintzako eredu batean, modernoa, parte-hartzailea eta aktiboa, eskarmentu handiagoa duen pertsonaren eta gazteagoa denaren arteko lankidetzak-konpromisoa bilatzen duena ekintzaitzaren eremuan. Metodologia honek konbinatzen ditu belaunaldi arteko elkarrekin sortzeko tailerrak, Living Lab esperientzia-laborategiak, banakako coaching eta enpresen sormena eta sorkuntza garatzeko ereduak eta tresnak.

⊗ **Helburu nagusiak:**

- Auto-enplegurako ekintzaitza aukera moduan balioestea, 30 urtetik beherako eta 45 urtetik gorako pertsonen enpleagarritasuna hobetu /langabezia lantzeko. Fokua pertsona nagusiengan jarri, Turismo Merkatuaren urterokotasuna saihestera lagundu.
- Zahartze aktiboa sustatu (aholkulari taldearen parte-hartzearen bidez).
- Aholkulari heziketarako eta "Ekintzaile Aholkularitza" pilotutza ikastaroak eman
- Ekintzaileei zuzendutako on-linea bidezko ikastaro bat sortu.

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**


- Unibertsitateak, Helduentzako heziketa zentroak eta LH Goi Mailako zentroak.
- Sektore artekoa ere izango da (enpresak, enpresa-sareak) eta Espainia eta Erresuma Batuko senior elkarteak elkartuko ditu.

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Proiektuaren esparruan, 18 aurrepilotutza egin dira, eta emaitza gisa, orain lantzen ari garen 4 enpresa-proiektu irten dira. Ildo honetan, esperientzia honen aplikazio praktikoaren erantzunak etorkizunean lekua du. Beste alde batetik, sortzen ari diren proiektu berrietan, belaunaldien arteko aholku eta ekintzaitzaren esparruan sortutako ezagutza berriak zeharkako moduan aplikatzen ari dira.

⊗ **Entitatea**

1975ean Donostian sortutako Lanbide Heziketa zentroa, bere eskaintza 3 lerrotan ardatzen da: Hasiarako prestakuntza (Heziketa zikloak, goi eta Erdi mailakoak), Etengabeko prestakuntza eta Lanerako prestakuntza.



5. Esperientzia:
**DEBABARRENAN BERRIKUNTZA
SOZIALA ERAGINEZ PROIEKTUA**


Entitatea: **DEBEGESA**, Sociedad para el desarrollo económico de Debabarrena

Harremanetarako datuak: **MAIDER GOGORZA**

Gaia:
Berrikuntza soziala.

Aplikazio esparrua:
Sozio-komunitarioa.

Kolektibo hartzaileak:
Eragile soziokulturalak, enpresak.



⊗ **Proiektuaren deskribapen laburra:**

Debabarreneko eskualdean Berrikuntza Soziala sustatzeko prozesua, horretarako eskualdeko eragileak artikulatuz eta ahaldunduz, berrikuntza sozialerako duten gaitasuna gehitzeko ibilbidearen eremuan. Eragile horien arteko artikulazioa hobetzean datza, eskualdeko gizarte-erronkei erantzun egokiak emateko eta laknkidetzatza-proiektu berriak sortzeko. Prozesu honetan, bi lan-ildo garatu dira. Alde batetik, Euskal Herriaren berrikuntza soziala bultzatzeko Elhuyarrek sortutako ebaluazio-sistema erabiliz, eskualdeko eragileek garatutako 6 proiektu zehatzen ebaluazioa. Proiektu hauek etorkizunean hobetzeko behar dituzten ezagutzak eta giltzak eragileen eskura jartzea da ebaluazio-sistema horren helburua. Beste aldetik, 3 topaketa egin dira eskualdeko eragileekin. Topaketa horiek ikaskuntza kolektiboko guneak izan dira, non berrikuntza sozialerako giltzei buruz sakondu eta ebaluazioen emaitzak eta ondorioak aztertu baitira.

⊗ **Helburu nagusiak:**

- Eskualdeko eragileekin ikaskuntza-prozesua bideratu, Berrikuntza Sozialerako ezagutza eta tresnak haien eskura jarritz.
- Etorkizunera begira, egungo eskualdeko proiektu batzuk ebaluatu, gizartearekiko duten eragina eta eraldaketa-gaitasuna hobetzeko.
- Eskualdean garatzen diren proiektuak balioan jarri eta ikusgai bihurtu.
- Eskualdeko eragileen arteko harremana estutu, talde-lan sare berriak sortuz, eskualdeko nortasuna sustatuz eta etorkizunera begira hartu beharreko norabideari buruzko gogoeta partekatua eginez.
- Berrikuntza Sozialaren inguruan eskualdean dinamika iraunkorra bultzatzea

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**


- Elhuyar
- Ebaluatutako 6 proiektu garatu dituzten entitateak

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Eskualde barruan, esperientziak Debegeesak garatutako proiektuetan berrikuntza sozialaren ikuspuntua sartzeko balio izan du, eta ildo honetan, berrikuntza soziala modu iraunkorrean bultzatzen jarraituko da. Esperientzia proiektu berrietara estrapolagarria izan daiteke eskualde barruan, edo beste lurralde batzuetara, edonola ere, beharrezkoa egiten da Elhuyar moduko erakunde aditu baten laguntza izatea, metodologia modu egokian zabaltzeko.

⊗ **Entitatea**

Debabarrenako 8 udalen borondatez 1985an sortutako elkarte, eskualdearen garapen jasagarria bultzatzeko eta eskualdearen premiak hobekuntza-ekintza zehatz bihurtzeko.



6. Esperientzia:
**UNIBERTSITATEKO GIZARTE
INKUBAGAILUA SORTZEN**


Entitatea: **Universidad del País Vasco / Euskal
Herriko Unibertsitatea**

Harremanetarako datuak: **ENEKOITZ ETXEZARRETA**

Gaia:
Unibertsitateko Gizarte Hazitegia.

Aplikazio esparrua:
Sozio-komunitarioa, hezkuntza (unibertsitatea).

Kolektibo hartzaileak:
Ekintzaileak, elkarteak, enpresak.



⊗ **Proiektuaren deskribapen laburra:**

EHUko GEZKI institutuak Gipuzkoako lurraldean martxan den KOOPFABRIKA Gizarte-ekintzaile programaren baitan Ikerketa Nodo bat zabalduko du, EHU eta KOOPFABRIKAREN arteko sinergiak bideratuko dituena.

⊗ **Helburu nagusiak:**

→ Gizarte-ekintzailetzak laguntzeko "Fitxategi Tekniko" propioa sortzea: pertsona ekintzaile zein tutoreentzat sortuko den tresna praktikoa, giza alderdia zein teknikitik gizarte-ekintzailetzak zehatzak dituzten premia zehatzei aurre egiteko tresna-multzoa jasoko duen fitxategia.

→ Gipuzkoako gizarte-ekintzailetzaren inguruko argitalpena.


⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**

- LANKI (MU)
- TALAIOS KOOP
- HIRITIK AT KOOP

- OLATUKOOP
- BAGARA
- GARAPEN AGENTZIAK: OARSOALDEA, DEBAGOIENA, BURUTZA-BETERRI

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Proiektua transferigarri eta desiragarria da. Bizkaian Bilbo inguruan errepikatzen ari da, Konfekoop, REAS eta Olatukoop.-en laguntzarekin. Beste alde batetik, etorkizunean gobernantza proiektu desberdinak martxan jartzeko oinarria sortzen ari da.



7. Esperientzia:
**MODELO DE UNIVERSIDAD
TRANSFORMADORA**

Entitatea: EMAUS G.F.

Harremanetarako datuak: OLAIA LARRUSKAIN
MANDIOLA

Gaia:


Gizarte ekonomia eta solidarioa / Unibertsitate Eraldatzaile Ereduak / Unibertsitateko Eraldaketa Rola / Unibertsitateak - Gizataldeek parte hartutako ekimen eraldatzaileak eta Gizarte Ekonomia eta Solidarioaren Ekimen ekonomikoak.

Aplikazio esparrua:

Goi Mailako Hezkuntza sektorea /Gizarte Ekonomia eta solidarioko sektorea / Tokiko eta orokorra den hirugarren sektorea / Goi Mailako Hezkuntza politika publikoak.

Kolektibo hartzaileak:

Unibertsitateko hezkuntza-komunitatea (irakasleak, ikasleak, administrariak, etab.).



⊗ Proiektuaren deskribapen laburra:

Emaús Gizarte Fundazioak garatutako EKIMUIN proiektuak (I.Fasea 2014-2017), unibertsitate-komunitatean gizarte ekonomia eta solidarioaren praktika eta kontzeptuak sartzeari bultzatzen du, ESetaS modu aktiboan sustatzen duen unibertsitate-ereduaren eraikuntza bultzatuz, kanpuseko eremu formal eta informalen artean dauden sinergietatik abiatuta. Horretarako, maila desberdinetan koordinatutako jarduerak planteatzen dira: alde batetik, ESetaSaren alderdi desberdinen curriculum-lerroan sartzeari eraginez; eta bestetik, kanpus mailan sentsibilizazio-jardueren antolaketarekin osatuz. Hauek publiko objektiboaren partaidetza aktiboa sustatzera bideratuta daude, eta hauei esker ikasgelan landutako kontzeptuak barneratzea eta harrapatzea lortuko da. Gainera, topagune birtualak antolatzea planteatzen da eta baita ESetaSen sustapenetik, garapen jasangarriko erreferentziatzko eragile gisa unibertsitatearen potentziala adierazten duen udako bi ikastaroren antolaketa ere.

⊗ Helburu nagusiak:

- Pertsonen aniztasuna eta genero berdintasunarekin lerrotatutako unibertsitate ereduak eraikitzen laguntzea, hezkuntza-eremu formalek eta informalek, ESetaSen praxis eta teoriaren sustapenean modu sinergikoan lan egin dezaten. Honen helburua EAEko unibertsitateko hezkuntza-komunitateak gaur egungo eredu sozioekonomikoa eraldatzeko tresnak edukitzea da.
- Unibertsitate eraldatzailearen ereduak sustatzen dituen Ekimuin proiektuekin honako helburuak lortu nahi dira:
 - 1. EMAITZA: Unibertsitateko hezkuntza-komunitatearen hezkuntza-eremu formal eta informalean ESetaS sustatzeko hezkuntza-prozesu eta ekintzen arteko koordinazio sinergikoa errazten duen unibertsitate-ereduaren proposamena egitea. Irisgarritasun profila hobetzera lagundu eta sentsibilizatu.
 - 2. EMAITZA: EAEko unibertsitateetan ESetaS-ko praktika, tresna eta ezagutzak hezkuntza formal eta kurrikularrean sartu
 - 3. EMAITZA: EAEko unibertsitate-komunitatearen hezkuntza-eremu ez formalean dinamizatzen eta parte hartzen duten eragileei ESetaS-eko praktika tresnak eta ezagutzak gerturatu.
 - 4. EMAITZA: Ereduaren praktikaren implementazioan lortutako ikaskuntzak unibertsitateko eragileekin eta Hego eta Iparreko taldeekin ikusgai bihurtu eta sozializatu.


⊗ Parte hartu duten beste erakundeak:

- NESOL – Núcleo de Economía Solidaria de la Universidad de Sao Paulo – Brasil
- Unibertsitate Kritikoa Sarea (conformado por ONGD de la Coordinadora de ONGD de Gipuzkoa que realizan parte de su labor en campus universitarios, así como profesorado interesado en propuestas colectivas transformadoras).
- GEZKI (UPV-EHU)
- Roskildeko Unibertsitatea – Dinamarca
- UEU
- INCUBES: Incubadora de Emprendimientos Solidarios de la Universidad Federal de Paraíba, Brasil
- NEGA: Núcleo de Estudios en Gestión Alternativa, Universidad Federal de Rio Grande do Sul, Brasil
- ITCP/UFSJ: Incubadora Tecnológica de Cooperativas Populares de la Universidad Federal de São João Del Rei, Brasil
- NuMi-EcoSol Núcleo Multidisciplinar e Integrado de Estudios, Formación e Intervención en Economía Solidaria de la Universidad Federal de São Carlos, Brasil
- Incubadora Tecnológica de Cooperativas Populares de la Universidad de São Paulo, Brasil
- IALA: Instituto de agroecología de las mujeres del campo ANAMURI, Chile
- SARRIKO EKT: Sarrikoko Ekonomia Kritikoko Taldea
- Proceso Desenrólate, Mugarik Gabe
- LANKI: Centro de Investigación del Desarrollo Cooperativo
- Programa IKERBILTZA, Udalbiltza
- Promoción del Aprendizaje Servicio (A-S): Grado de Educación Social de la Universidad Pública del País Vasco
- Minor Gestión Social de la Empresa, UPV/EHU - Facultad de Economía y Empresa de Vitoria/Gasteiz, Grado Administración y Dirección de Empresas
- Máster Universitario en Economía Social y Solidaria de la Universidad Pública del País Vasco
- Economistas sin Fronteras
- Deustuko Unibertsitatea
- Mondragon Unibertsitatea
- GAZE eta IKD
- Zerbikas
- ...

⊗ Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:

Proiektuaren hurrengo fasean, lehenengo fasean garatutako proposamenen ezarpenean aurreratu nahi da, beste unibertsitateetan eta fakultateetan. Proposamen hauetara irekiak erabaki-eremu nabariak identifikatzea bilatzen da. Unibertsitate Kritikoa Sarearen taldeko ekintza- eta gogoeta-espazioei ikaskuntzak ematen jarraitzea. Beste alde batetik, lanarekin jarraitzeko funts egonkorren gabeziak egoera ahulean jartzen du proiektua. Halaber, unibertsitate eta gizarte erakundeen arteko lankidetzarako gunek instituzionalizatu zehatzik ez dago unibertsitatean. Ekimen hauek irakasle eta ikasleen borondatezko lankidetzak konprometituen menpean daude, eta hauei, askotan, ez zaie ahalegina eta arduraldia ofizialki aintzatesten.





8. Esperientzia:
EKIMENA PROIEKTUA


Entitatea: Goiena Komunikazio Taldea Koop.
Elkartea

Harremanetarako datuak: AGURTZANE GAINZARAIN

Gaia:
Partaidetza - Antolakuntza-eredu berriak.

Áplikazio esparrua:
Enpresak.

Kolektibo hartzaileak:
Goienako langileak.



⊗ **Proiektuaren deskribapen laburra:**

Enpresaren helburuak eta erakundea osatzen duten pertsonen garapen eta konpromisoa elkarrekin lerrotatzera bideratutako kudeaketa ad hoc eredu.

⊗ **Helburu nagusiak:**

→ Goienako estrategia-helburuak erakundea osatzen duten pertsonen premia eta konpromisoekin lerrotatuta zabaltzea.

Balio partekatutak identifikatu, plan estrategikoan sartu eta lanpostu bakoitzera zabaldu.

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**


- OPE Consultores

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Barne-mailako proiektua da, beste entitate batzuetan lekua eduki dezakeena, baina nolnahi ere, OPE Consultores bezalako adituaren aholkularitzarik gabe oso zaila izango litzateke proiektua garatzea. Bestalde, Goienako barne-mailan, hasitako lan-ildoak jarraipena du, eta gaur egun lan kargak neurtzeko sisteman lanean ari da. Lan eta erantzunkizunen banaketa zuzenagoa lortzea da horren helburua.

⊗ **Entitatea**

Kooperatiba sozietate formularen pean 2000. urtean sortutako komunikazio taldea. Debagoieneko eskualdean, euskarazko komunikabideak garatu eta indartzea da haren helburua. Gaur egun komunikabide desberdinen bidez lortzen du (Telebista, irratia, paper euskarrieta).



9. Esperientzia:
**GOIERRIKO KOOPERATIBETAKO
LANGILEEKIN
ERANTZUNKIDETASUN SOZIALEAN
OINARRITUTAKO TOKIKO
GARAPENA BULTZATZEN**

Entitatea: Goierriko Ekimena

Harremanetarako datuak: IKER GALPARSORO

Gaia:


Goierriko kooperatibetako langileekin Erantzunkidetasun Sozialean oinarritutako tokiko garapena bultzatzea. Pertsonengandik-lurraldera: Goilan Erantzunkidetasun Sozialari begira.

Aplikazio esparrua:

Enpresa, sozio-komunitarioa.

Kolektibo hartzaileak:

Enpresak, langileak.



⊗ **Proiektuaren deskribapen laburra:**

Erantzunkidetasun soziala, langileen partaidetza eta tokiko garapena elkarrekin biltzen dituen ekimena. Eskualdeko kooperatibetako langileen partaidetzaren bitartez, erantzunkidetasun sizoalean oinarritutako tokiko garapena bultzatzean datza, pertsonengandik lurraldera sortutakoa.

⊗ **Helburu nagusiak:**

- Goilan osatzen duten kooperatibetako langileekin erantzunkidetasun sozialaren inguruko partaidetza prozesua abiatzea, langileak ahalduntzea eta enpresa-estrategiaren parte bilakatzea.
- Goilaren eskutik erantzunkidetasun sozialaren inguruko gogoeta partekatua abiatzea Goierriin. Erantzunkidetasun soziala nola ulertzen dugun zehaztea eta horri begira nola posizionatzen garen definitzea.
- Erantzunkidetasun soziala tokiko garapenarekin lotzea.
- Goierriin, gizarte-mailan dauden erronken inguruko azterketa partekatua egitea eta horiei erantzuten hasteko plangintza osatzea.
- Goierri mailan gizarte -ohesioa indartzea.

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**

- Logos
- Ederfil
- Becker
- Kendu
- Eredu
- Ampo
- Hertell
- Panelfisa
- Orkli
- Aizkorpe
- Goiener
- Praxair
- Jaso
- CAF
- Indar


⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Proiektua diseinatzerako orduan, prozesua sistematizatzeko asmoarekin, Gipuzkoako beste eskualde batzuetara garatzeko beharrezkoak diren osagarriak identifikatzeko prozesua aztertu da.

Bestalde,, prozesuak garapen handiagoa behar du, eta beharrezkoa da enpresetarako interes handiagoa duten prozesuak identifikatzeko ekintzak garatzea, baita eraginkortasun-mailan emaitza hobekoak lortzeko ere.

⊗ **Entitatea**

Goieki, Goierriko eskualdea osatzen duten 18 udalek 1993an sortutako **Goierri eskualdeko Garapen Agentzia** da. Goierriarren bizitza kalitatea oinarri hartuz, eskualdeko jasangarritasunaren garapena sustatzea du helburu: horretarako lehentasunezko 5 esku-hartze esparrutan garatutako strategiaren garapenaren bidez lortzen da: industria, ekintzailtza, turismoa, ingurumena eta gizartea.



10. Esperientzia:
CUADRO DE MANDO DE IMPACTO SOCIAL


Entitatea: **GUREAK**

Harremanetarako datuak: **JON ANDER ARZALLUS**

Gaia:
Gizarte-inpaktua.

Aplikazio esparrua:
Enpresakoa - Gureak.

Kolektibo hartzaileak:
Zuzendari taldea, langileak, gainerako stakeholder.



⊗ **Proiektuaren deskribapen laburra:**

Gureak enpresan garatutako barne-prozesua, enpresako profil eta eragile desberdinen talde-partaidetzarekin egindako gogoeta eta analisi prozesu batetik abiatuta, enpresaren jardueraren gizarte-eragina neurtzen duen aginte-mahaia garatzea ahalbidetu duena.

⊗ **Helburu nagusiak:**

- Gureak enpresak garatutako jardueraren gizarte-eragina neurtzen duen aginte-mahaia sortzea.
- Inpaktuari erretaratuta, entitatearen erronkak identifikatzeko eta lantzeko metodologia sartzea. I
- Gizarte mailan Gureak-ek garatutako lana balioan jartzea

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**


- Sinnple

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Sortutako adierazle koadroa, Gureak-en negozio-logikari eta eraginkortasunari erantzuna ematen diona. Edozelan ere, prozesua eta metodologia beste entitate batzuetarako baliozkoak izan daitezke, nahiz eta bere garapenerako Sinnple moduko entitate aditu baten laguntza beharrezkoa den.

⊗ **Entitatea**

GUREAK euskal enpresa taldea da, sektore desberdinetan lan egiten duena (industria, zerbitzuak eta marketing), Desgaitasuna duten pertsonei eta, bereziki, Gipuzkoan adimen-desgaitasuna dutenei behar bezala egokitutako lan-aukera egonkorrak sortzen eta kudeatzen ditu. Gaur egun, 5.137 pertsonetako lan taldea du, eta horietako %82,5 desgaitasuna duten pertsonak dira.



11. Esperientzia:
**OIHANA: PLAN INTEGRADO PARA
EL DESARROLLO DEL
EMPRESARIADO EN LA
ECONOMÍA SOCIAL**

Entitatea: ISEA S. Coop.

Harremanetarako datuak: MIKEL OROBENGOA ORTUBAI

Gaia:


Gizarte ekonomian ekintzaitza

Aplikazio esparrua:

Ekintzaitza eta enpresa dibertsifikazioa

Kolektibo hartzaileak:

MONDRAGON kooperatibetako enpresa eta langileak



⊗ **Proiektuaren deskribapen laburra:**

Mondragon korporazioaren baitan ekosistema ekintzailean parte hartzen duten pertsonak indartzera bideratutako ekintza-multzo integratuak osatzen du OIHANA proiektua. Enpresa kooperatibo berriak eta enplegua sortzeko dinamikak areagotzea da helburua, eta ekintza horiek haren kooperatiben eremu geografikoetan kohesio ekonomikoa, soziala eta lurraldekoa finkatzea ekar dezatela.

⊗ **Helburu nagusiak:**

- Giza-kapital ekintzailearen garapena, gizarte ekonomiaren enpresa-sustapeneko proiektuetarako kapital hori hautemanez eta sustatuz.
- Esperientzia ekintzaileetan eta enpresa-proiektu berriak abian jartzeko prozesuen dinamizazioaren ondorengo aplikazioan zehar sortutako ezagutzaren eskuratzea eta formalizazioa.
- Enpresa-sustapena eta talde ekintzaileen tutoretza kontuan hartzen dituzten diziplinetan, ekintzailetzari eusten dioten hainbat enpresen lanbide-gaitasunen indartzea.
- Ekintzailetzaren finantzaketara eta dibertsifikaziora zuzendutako tresna korporatiboak eguneratzea. Gizarte ekonomian enpresa-sustapenaren erronkei aurre egiteko, entitateei egokitutako diru-hornidura ziurtatzea.
- OIHANA proiektuaren prestaketan, diseinuan eta burutzean, aukera berdintasuna sustatzeko eta jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritziagatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo orientabide sexualarengatik bereizkeria prebenitzeko neurri zehatzak hartzea.

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**


- MONDRAGÓN CENTRO DE PROMOCIÓN S.COOP.

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

OIHANA proiektuak "eskalagarritasun" indize garaia adierazten du lortutako ezaguerak eta esperientziak beste eremu geografikoetara transferitzeko, kontutan hartuta **ekindako arazoak Gipuzkako ekonomiari eragiten diola**. Ildo honetan, proiektuaren produktu metodologiko nagusien artean, SAIOKA saioretako euskarri materialak eta esku-hartze metodologia nabarmentzen dira. Hauek, giza-kapital ekintzailea eta "La Lanzadera de nuevos negocios" izeneko esperientziazio eta prestakuntza aktiboko metodologia hautematera eta sustatzera bideratuta daude.

⊗ **Entitatea**

MONDRAGON Korporazioko Ingeniaritza eta Enpresa Zerbitzuen Dibisioak sustatutako Enpresa Zerbitzuen Sektorean espezializatutako irabazi-asmorik gabeko Berrikuntza eta Ekintzailetasun Zentro pribatua da. Bere zeregina Enpresa zerbitzuetan, Ingeniaritza zibil eta arkitekturan, Informazio eta Komunikazio Teknologietan, Sistema integrazio ingeniarietan eta Heziketa Ingeniarietan oinarritzen da.



12. Esperientzia:
NERECOOP 2020


Entitatea: MCC

Harremanetarako datuak: **IÑIGO LARREA**

Gaia:
Kudeaketa-eredu berriak, talentu-erakartzea.

Aplikazio esparrua:
Enpresak, MCC kooperatibak.

Kolektibo hartzaileak:
MCC kooperatibako zuzendaritza talde eta langileak.



⊗ **Proiektuaren deskribapen laburra:**

Kooperatibetan talentua lortzeko Employer Branding-ean oinarritutako ad hoc diseinatutako estrategia sortzea bilatzen duten esperientzia pilotuak. Ehun ekonomikoa aldaketa teknologiko handiak jasateko prestatzen ari den testuinguruan, lurralderai talentu teknikoa garatzeko eta erakartzeko erronkaren esparruan kokatzen da proiektua.

⊗ **Helburu nagusiak:**

- Ad hoc diseinatutako metodo baten aplikazioaren bidez, lurraldearen industria-enpresak aurreikusten ari diren etorkizuneko erronkei erantzuna emateko helburuarekin, erakundeetara talentu teknikoa erakartzea.

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**


- Fagor Electrónica S. Coop. Ltda.
- ULMA Packaging S. Coop.

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Egungo proiektuari dagokionez, beste kooperatiba batzuetan esperientzia aplikatuko da, baina, aldi berean, formatu berria, ekonomikoagoa, garatzen ari da, non hainbat kooperatibek prozesua partekatzen baitute. Bestalde, talentuaren kudeaketarako eredu zabalagoa lantzen ari da, branding/marketing estrategietatik haratago doana.

⊗ **Entitatea**

100 kooperatiba baino gehiagok osatzen duten **enpresa taldea**, lehena Euskal Herrian eta hamargarrena Espainian. Enpresak, unibertsitateak eta ikerketa zentroak artikulatzen dituen ezagutza-ekosistema zabala da, eta haren kudeaketa- eta antolaketa-ereduak pertsonenganako orientazioa eta lurraldearekiko konpromisoa hartzen ditu barmean, lehiaketa-abantail gisa.



13. Esperientzia:
PERTSONAK 4.0


Entitatea: MIK

Harremanetarako datuak: SAIOA ARANDO

Gaia:
Kudeaketa-eredu berriak, talentu-erakartzea.

Aplikazio esparrua:
Enpresakoa, MCC kooperatibak.

kolectibo hartzaileak:
MCC kooperatibetako langileak eta zuzendaritza-taldea.



⊗ **Proiektuaren deskribapen laburra:**

Lanbide-profil berrien eta pertsonen kudeaketa sistemen inguruko ikerketa, digitalizazioak ekarriko duen lan-paradigma berrian (4.0) enpresek lehiakortasun-maila hobetu edo mantendu dezaten beharrezkoak direnak. Ezezaguna den agertokiari ekiteko eredu praktikoak eraikitzea ahalbidetzen duen ezagutza berria sortzea da helburua. Talentu urriko testuinguruan, pertsonen kudeaketari eta kudeaketa estrategikoari dagozkien erronkei aurre egiteko laguntza ematen die enpresei ezagutza horrek.

⊗ **Helburu nagusiak:**

- Etorkizuneko profiletan eragina duten faktoreen mapa eraikitzea, hurrengo alderdiak identifikatzen lagunduko duena:
- Testuinguru berri horretarako beharrezkoak diren profilak
 - Langileen beharrezko gaitasunak
 - Pertsonak kudeatzeko sistemak (aintzatespena, lidergo-estiloa, talentuaren kudeaketa, partaidetza...)

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**


- Iñigo Larrea (MCC – NereCoop 2020)
- Gogoeta prozesuan 8 enpresek hartu dute parte

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Ezagutza sortzen ari da, baina beharrezkoa da gehiago ikertzea, enpresekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean, talentu urriko testuinguruan pertsonen kudeaketari eta pertsonen kudeaketa estrategikoari dagozkien erronkei aurre egiteko enpresei laguntza emango dieten eredu praktikoak lortzeko (identifikatu / erakarri/ mantendu).

⊗ **Entitatea**

Mondragon unibertsitatearen egituraren barnean dagoen Mondragon Corporationeko kudeaketa aurreratuan ikerketa zentroa.



14. Esperientzia:
BATERATZEN


Entitatea: MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Harremanetarako datuak: UNAI ELORZA

Gaia:
Antolaketa-eredu berriak.

Aplikazio esparrua:
Enpresakoa, antolaketakoa, Administrazio Publikoa.

Kolektibo hartzaileak:
Giza Baliabideetako arduradunak, Ikertzaileak,
arduradun politikoak.



⊗ **Proiektuaren deskribapen laburra:**

Pertsonen arteko harremani, produktibitateari eta emozioei buruzko ezagutza sortzeko eta agertoki onuragarriagoak sortzeko enpresei eta administrazioari esku hartzeri ahalbidetzen dieten tresnak garatzeko ekimena da. Antolaketa-estategien ildoan dauden portaerak sustatzea da helburua.

⊗ **Helburu nagusiak:**

- Pertsonen partaidetza eta inplikazio handiagoaren bitartez, enpresen lehiakortasunean inpaktua lortzeko bideratutako informazioa ematen duten kalitatezko adierazle hobeagoak sortu. Informazio horrek enpresak lagunduko ditu ondorengo alderdietan:
 1. Ezagutzea zein neurriraino erakundeko pertsonak "lerrokatuta" dauden eta haien potentziala "askatzen" ari diren erronka estategikoen/antolaketa-proiektuaren alde.
 2. Erakundearen egoera sektorearekiko ezagutzea (pertsonen eremu honetan).
 3. Proiektuarekin konprometita edo/eta "libratuta" dauden antolakundeko pertsonen ehunekoak zehaztea, eta baita haien egoera emozional / energetikoa ere.
- Sektore eta lurralde mailako egoeraren neurri objektiboa eskura jartzea, erabakiak ebidentzia empirikoetatik abiatuta hartzeko laguntzeko asmoarekin.

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**


- Enpresak eta enpresa erakundeak
- Euskadiko lau unibertsitate (UPV/EHU, Deustuko unibertsitatea, Tecnun, Mondragon Unibertsitatea) eta beste batzuk ,
- Aholkularitzak (LKS; OPE; Otalora)
- Administrazio publikoa (Gipuzkoako Foru Aldundia eta eskualdeko Garapen agentziak)

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Zeharkako proiektua da eta horregatik bere emaitzak errealitate desberdinetara zabaltzeko modukoak izatea espero da. Nolanahi ere, oraindik diagnosi fasea hobeto lantzea beharrezkoa da, ekintza-planak garatzea ahalbidetzen duten tresnak sortzeko ezagutza handiagoa sortzea behar da. Bestalde, difusioa beharrezkoa da masa kritiko handiagoa izateko. Gainera, lanean ari garen datu basearen mantenu /jasangarritasunari buruzko gogoeta beharrezkoa izango da.

⊗ **Entitatea**

Mondragoneko Korporazio barruan dagoen kooperatiba den Unibertsitatea.



15. Esperientzia :
**COORDINACIÓN DE HERRAMIENTAS
DE DIAGNÓSTICO**


Entitatea: OPE CONSULTORES

Harremanetarako datuak: AINHOA ZATARAIN

Gaia:
Antolaketa-eredu berriak berriak.

Aplikazio esparrua:
Enpresakoa, antolaketakoa, Administrazio Publikoa.

Kolektibo hartzaileak:
Giza Baliabideetako arduradunak, Ikertzaileak,
arduradun politikoak.



⊗ **Proiektuaren deskribapen laburra:**

Pertsonen kudeaketaren eremuan Gipuzkoako entitate desberdinek garatutako ezagutzak, tresna bakar batean integratu eta koordinatzeko ekimena. Hauetako bakoitzak alderdi espezifiko desberdinak hartu ditu ardatz (emozioak, etenbigabeko hobekuntza ...), baina osagarriak direnak.

⊗ **Helburu nagusiak:**

→ Pertsonen kudeaketarekin lotuta dauden garatutako tresnak integratzen dituen tresna eta metodologia komuna sortzea; hortaz, gaur egun sakabanatuta dagoen ezagutza bide bakar baten bidez enpresetara eta erakundeetara iristea.

→ Ahalegina optimizatzea eta sinergiak eta emaitza hobekoak lortzea ezagutza berriaren sorkuntzan.

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**


- Bi aholkularitza (inpress, OPE) eta bi unibertsitateen (MU eta Tecnun) lankidetzak. Gero eragile berriak integratu dira (ASLE,...).

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Hemendik aurrera, proiektuak ekintza planerako proposamenak sortzea hartu du ardatz, lortutako emaitzetatik eta informatika erremintek garapena eta metodologia alderatuz eta ezarriz. Bestalde, beharrezkoa da etorkizunean komunitate hau nola kudeatuko den hausnartzea.

⊗ **Entitatea**

Donostian kokatutako aholkularitza enpresa. Enpresa eta erakundeentzako antolakuntza diseinuan, optimizazioan eta estrategia garapenean zuzendaritzari laguntza ematen diote, kasu bakoitzean neurria egindako konponbideekin.



16. ESPERIENTZIA:
ITURRION

Entitatea: **Sozial Neurri**

Harremanetarako datuak: **IMANOL ITURRIOZ**

Gaia:


Berrikuntza Soziala, kontsumo elikadura jasangarria.

Aplikazio esparrua:

Erkidego bazkide, Elikadura sektoreko enpresak.

Kolektibo hartzaileak:

Elikadura sektoreko enpresetako arduradunak,
herritarrak oro har.



⊗ **Proiektuaren deskribapen laburra:**

3 eremutan ardatzen diren 80 funtsezko adierazle-sisteman oinarritutako metodologia batetik abiatuz, produktuen jasangarritasuna ebaluatzea ahalbidetzen duen tresna (ingurume- inpaktua, gizarte-inpaktua eta osasun-inpaktua). Bakoitzean ebaluatutako alderdi eta eremu desberdinak 1etik 10erako eskalako balioespenak eskainiz.

Bere aplikazioak alderdi bikoitza hartzen du barnean: alde batetik, elikadura sektoreko enpresei balio zaie auto-diagnosi erreminta gisa, jasangarritasun eta gizarte-erantzukizun eremuetan burutzen dituzten praktikei dagokienez. Hobekuntza-alderdiak hautematea erraz dezake, eta eragin onuragarriak balioan jartzera eta ezagutzera ematera lagun dezake. Bestalde, kontsumitzaileei nutrizio-balioa eta jasangarritasunari buruzko informazioa eskaintzen die, erosteko erabakian aldagai berriak sartuz.

⊗ **Helburu nagusiak:**

→ Kontsumitzaileei ersoteko erabakia hartzeko jasangarritasuna aldagai berri gisa sartzea ahalbidetzen duen tresna sortzea, eta aldi berean enpresei jasangarritasun eta gizarte-erantzukizunaren inguruan dituzten praktikak balioan jartzeko balio duena.

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**


- Tech for society (tresnaren garapena)
- Goenaga Esnekiak (metodologiaren aplikazioa)
- Elikasport (elikaduran adituak)
- Euskal Herriko Unibertsitatea (metodologiaren garapena)

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Auto-diagnostikoaren aplikazioak ibilbide luzea du; ezagutza produktu bihurtu da merkatuan eta, hortaz, gizartean sartu ahal izateko. Horretarako, lanean jarraitu behar da, sare sozialetan; kontsumitzaileekin Facebook bitartez eta enpresekin LinkedIn bitartez konektatzea da asmoa.

⊗ **Entitatea**

Enpresaren Gizarte-erantzukizunaren eta ikerketa sozio-ekonomikoen arloan berritzailea den aholkularitza-enpresa. Metodologia eta teknika berrien aldeko apusuta egiten du, erakunde mota bakoitzera egokituz, nagusiki gardentasunean eta erakundeen interes-taldeekin komunikazio hobea oinarritutakoa.



17. Esperientzia:
HEZI+


Entitatea: Tech for society

Harremanetarako datuak: PAUL GURMENDI

Gaia:
Bizitza osoaren zeharreko ikaskuntza.

Aplikazio esparrua:
Hezkuntza, Sozio-komunitarioa.

Kolektibo hartzaileak:
Prestakuntza antolatzen duten erakundeak, herritarrak oro har.



⊗ **Proiektuaren deskribapen Taburra:**

Ikaakuntza-jarduera guztien (formalak eta informalak) hedapenerako webgunea, jardueren kudeaketarako (izen ematea...) eta emaitzen monitorizaziorako erabilgarritasunak barnean hartzen dituena.

⊗ **Helburu nagusiak:**

→ Bizitza osoaren zeharreko ikaskuntzari buruzko eskaria eta eskaintza lotzen dituen webgunea sortzea. Gaitasunetan oinarrituta egongo dena eta prestakuntza-jardueren antolatzaileen eta haien erabiltzaile potentzialen partaidetza interaktiboaren bidez elikatzen dena, horrela, azkenik, gaitasunen garapenean joerak monitorizatuz

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**


- Prestakuntza antolatzen duten erakunde desberdinak

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Garapen-aukeretako bat, lurralde mailan joera/emaitzen ustiapenerako tresna egokitzea zen, baina honek administrazioaren interes, lankidetzeta eta konpromisoa behar du. Bestalde, etorkizunera begira erremintaren jasangarritasunari buruzko gogoeta irekitzen da, bere egungo kontzeptualizazioak monetizazioa zailtzen duelako eta finantzaketa publikoaren menpean egotera behartzen duelako. Gipuzkoara mugatzeak haren jasangarritasuna oztopatzen du.

⊗ **Entitatea**

Teknologia oinarritzat duen enpresa, kudeaketan, partaidetzan, gardentasunean... administrazio eta enpresetarako konponbide teknologiko desberdinak eskaintzeko software eta sistemen integrazioaren garapen eta diseinuan adituak.



18. ESPERIENTZIA:
LANGIRO


Entitatea: **Tech for society**

Harremanetarako datuak: **PAUL GURMENDI**

Gaia:
Kudeaketa-eredu berriak, pertsonen kudeaketa.

Aplikazio esparrua:
Enpresa- Erakundeak.

Kolektibo hartzaileak:
Erakundeetako Giza Baliabideetako arduradunak /
pertsonen kudeaketaren arduradunak.



⊗ **Proiektuaren deskribapen Taburra:**

Erakundeetan pertsonen asebetetze-mailari buruzko ikerketak egiteko web aplikazioa, lurralde, sektore edo maila orokorrean parte hartzen duten enpresa-multzoaren emaitzekin alderatzeko aukera ematen duena. Gainera izaera publikoa duen atala du, pertsonen kudeaketa arloko kasu arrakastatsuak barnean hartzen dituena, eta baita pertsonen kudeaketaren eremuko profesionalen direktorioa ere.

⊗ **Helburu nagusiak:**

- Antolakundea osatzen duten pertsonen hautemate/asebetetzeari buruzko informazioa antolakundeei ematen dien erreminta sortzea, lanari eta erakunde barruan garatzen ari den kudeaketari buruzkoa, eta enpresa kokatzen den lurralde edo sektoreko emaitzekiko emaitzak kokatzea. Hurrengo ekintzetarako erabilgarria izanez:
 - Enpresa edo langilearen konpromiso eta motibazio maila ezagutzeko, eta partaidetzaren bidez hau hobetzen laguntzeko.
 - Errendimendu hobea lortzeko oztopoak identifikatzea eta barruko arazoak eta aurreikustea eta konpontzea.
- Langileek pentsatzen dutena jakiteagatik zuzendaritzak duen interesa eta lidergoa transmititu, eta beraien errekonozimenduaren hautematea hobetu/indartu.
- informazioa modu anonimoz ematea ekoreko beste enpresetako emaitzekin alderatzeko.

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**


EHU, Ope cunultores eta Sainz Consultores moduko enpresak ereduaren baliztatzean, eta 15 enpresa ezarpen esperimentalean.

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Fase hau metodologian erdiratu da, eta hau eraikitzeko eta balioztatzeko giza baliabide esparruko adituen lankidetzaren behar izan da, eta hurrengo erremintaren garapenean ardatzen da. Ildo honetan, erremintak lurralde mailan emaitza orokorren alderdia du, horregatik lurralde mailan baliozko emaitzak lortzea baimentzen duen masa kritiko bat lortzeko erremintaren sozializatorako garrantzitsua izango da lankidetzaren. Bestalde, erreminta beste eremu batzuetara egokitzeko aukera dago, eta baita lan girora ere.

⊗ **Entitatea**

Teknologia oinarritzat duen enpresa, kudeaketan, partaidetzan, gardentasunean... administrazio eta enpresetarako konponbide teknologiko desberdinak eskaintzeko software eta sistemen integrazioaren garapen eta diseinuan adituak.



19. ESPERIENTZIA:
IKD GAZTE


Entitatea: Universidad del País Vasco
Servicio de Asesoramiento Educativo (SAE)

Harremanetarako datuak: ITZUAR REKALDE

Gaia:
Ekintzaitza, ekimena.

Aplikazio esparrua:
Hezkuntza (unibertsitatea).

Kolektibo hartzaileak:
Unibertsitateko ikasleak.



⊗ **Proiektuaren deskribapen laburra:**

Ikasleengan ekimen sena bultzatzeko metodologia didaktikoa, gizarte izaera duten proiektu errealen garapenean ahaldunduz.

⊗ **Helburu nagusiak:**

- Curriculum-garapeneko IKD moduluaren esparruan, EHU, ikasketa aktiboko metodologiaren ezarpen-prozesuan ikasleentzako ahaldunduz.
- Curriculumean ekimen sena txertatzen duen esperientzia garatzea da helburu zehatza. Zehazki, ekimenari lotutako gaitasunak ikasteko bakoitzak kudeatutako modulu baten diseinu eta ezarpena datza, eta baita ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren protagonista bilakatzeko baliabideak eskaintzean ere, "ideien bidez proiektuak eraikiz" moduluaren bidez, "Proiektuak eraikitzen dituzten Ideiak" moduluaren bitartez, ingurune hurbileko hainbat gizarte-eragileek benetazko erronkak planteatzen dizkiete gradu ezberdinetako eta hauek lan egin behar dute erronka horiei erantzuna emateko, diziplina anitzeko taldeetan lan eginez eta proiektua errealitatean aplikatuz.

⊗ **Parte hartu duten beste erakundeak:**


Atari, Aguas de Añarbe, Fomento de San Sebastián, Goiener, Gureak, Emaus, Ayuntamiento de Bilbao, Albaola, Saretuz, Kalapie, San Markos mankomunitatea, EITB Irratia, Emaus, EHU; ONCE...

⊗ **Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:**

Ekimen honen 5 edizio egin dira, hobekuntzak sartzen joan dira eta programa sendotuz joan da. Metodologia hori beste unibertsitateetara estropola daiteke, eta baita giza erronka berrietara ere.

⊗ **Entitatea**

Euskal Herriko Unibertsitate Publikoak, berrikuntzara bideratutako ekimen desberdinak bultzatzeagatik nabarmentzen da, bereziki hezkuntza arloan. Ikuslegi orokorragotik, bere titulazio aukera zabalagatik eta ikasle, irakasle eta ikertzaile kopuruagatik nabarmentzen da.



20. ESPERIENTZIA: **BELAUNALDIAK UZTARTU**

Entitatea: Cidec

Harremanetarako datuak: Isabel Arrillaga

Gaia:


Adinaren kudeaketa, Belaunaldien arteko ezagutzaren transferentzia. Sormen dinamikak.

Aplikazio esparrua:

Enpresa-Erakundeak, zientzia, kultura eta merkataritza sektoreak

Kolektibo hartzaileak:

Lanean dauden langileak (55 urtetik gorakoak eta adin gutxiagokoak), ekintzaileak, ikasten ari diren pertsonak - Lanbide Heziketa, unibertsitatea...-



⊗ Proiektuaren deskribapen laburra:

Merkataritza eta kultura sektoreetan ezagutzaren belaunaldien arteko transferentziari buruzko esperimentazio proiektua. 55 urtetik gorako pertsonak dituzten gaitasun helduen, gaur egun sektorean lan egiten dutenen lanbide-gaitasunen eta etorkizunean parte hartuko dutenen (gaur egun ikasten daudenak) gaitasunen kontrastetik abiatuta, BELAUNALDIEN ARTEKO GAITASUNEN ETA BALIOEN MAPA identifikatzen da (esperientzia gaitasunak – arrakastak eta porrotak-)

⊗ Helburu nagusiak:

- Lan-jarduera garatzeko behar diren ESPERIENTZIA-GAITASUN ETA BALIOAK identifikatzea (pertsonalak, emozionalak, kulturalak, ingurunearekin lotutakoak, berrikuntza sozialekoak, arrakastakoak, porrotekoak...).
 - Ikuspegi bikoitza duten ESPERIENTZIA-GAITASUN ETA BALIOEN MAPA DINAMIKOAK egin: SEKTOREAREN IKUSPEGI BERTIKALA (nagusien, gazteen, ikasten daudenen begirada anitzak) eta ADINAREN IKUSPEGI HORIZONTALA, adin-talde eta esperientzia profesionaleri gaitasun komunak identifikatuz.
- bizitza osoan zeharreko orientaziorakop eta ikaskuntzarako LOTURAZKO ESPAZIO ETA PROZESU ALTERNATIBOAK ESPLORATZEA (eta osagarriak), pertsonen eta erakundeen arteko loturak sendotzen dituztenak: sektorean interesa duten ikasleak, ekintzaileak edo langabezia edo lanean dauden langileak, prestakuntza-zentroak, lanbide-orientazioko profesionalak, enpresak...

⊗ Parte hartu duten beste erakundeak:

Belaunaldiak I: Ikertalde, Inkor,+ kultura eta merkataritza sektoreko entitate adierazgarriko pertsona desberdinak (Donostia Kultura, Barakaldo Antzokia, Gipuzkoako Merkatarien Federazioa,...)
 Belaunadldiak II: Euskal Herrian zientzia eta teknologiako entitate adierazgarriak (Ikerbasque, Fellows Gipuzkoa-Gipuzkoako Foru Aldundia-, Bizkaia talent – Bizkaiaiko Foru Aldundia-, etab.).

⊗ Transferigarritasuna eta iraunkortasuna:

Ekimen tipologia honi buruzko interes handia nabaritzen da baina era sistematikoan ekiteko, erakundeetan sentsibilizazio gutxi antzematen da. Interesgarria dirudi, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan eta prestakuntzan aritzen diren entitateen artean ahalegin gehiago eskaintzea, horrela prestakuntza iraunkorreko erreminta moduan ezagutzaren transferentzia hau sustatzen duten ekimenak sustatzen jarraitzeko. Aldi berean, belaunaldien arteko ezagutzaren transferentzian aurrera egiteko erakunde publiko eta pribatuen kontzientziazio lan handia egin behar da.

⊗ Entitatea

Cidec – Berritapena eta Gizarte-garapena, irabazi-asmorik gabeko erakundea da. Enplegu, prestakuntza eta gizarte garapenaren alorrean jokabide egokientzako, berrikuntzaren hedapenerako eta estrategia-gogoetarako eremu ireki moduan eratzen da. Ezagutzaren sorkuntza eta transferentzia bultzatzen ditu.

